

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA ETA NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 24/2019 Foru Dekretua, apirilaren 17koa. Onestea Samaniegon izandako suteak kaltetutakoak ordezkatzeko makinak eskuratzeko ezohiko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia**

2018ko azaroaren 16an Arabako Samaniego herrian gertatu zen suteak kaltetutako makineria ordeztekoa eskuratzeko laguntza berezien oinarri arautzaileak eta haien deialdia onartzea.

Joan den 2018ko azaroaren 16an sute suntsitzaile bat gertatu zen Arabako Samaniego herrian, guztira 15 pabilioi eta haietan biltegitratzen ziren gauzak eta makineria guztiz suntsitu zituen.

Sutearen tamainaren ondorioz, pabilioiak eraitsi behar izan ziren eta bertan gordetzen zen makineria guztiz erabilezin geratu zen. Kalte ekonomiko eta sozial larria eragin die horrek herri hain txiki batean erasandako auzotar eta jarduera ekonomiko askori.

Egoera horrek koloka utzi ditu erasandako negozio asko, batez ere nekazaritzan eta mahastizaintzan eta ardogintzan dihardutenetan, eta arriskuan utzi ditu haien etorkizuneko bideragarritasuna zein herriaren garapen ekonomikoa.

Horregatik, beharrezkoa da mekanismoak jartzea jasandako kalteak arintzeko, erasandako enpresen jarduera leheneratu eta berriz hasteko. Enpresa horiek berehala ordeztu behar dute suntsitutako makineria eta, nekazaritzaren kasuan, landako lanei berrekin behar diete, halako moldez honen hurrengo ardogintza kanpaina kaltetuta gertatzen ez den.

Dirulaguntza horiek eskuratzeko oinarri argiak eta zehatzak, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatuko dituztenak, ezarri behar direlakoan eta, era berean, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Diru-laguntzei buruzkoan, xedatutakoa aplikatuz, laguntza horiek lehia askean arautuko dituzten oinarriak aurkezten dira, Samaniego herrian 2018ko azaroaren 16ko sutean erasandako negozioen jarduera ekonomiko leheneratzeko, baita haien deialdia ere.

Arabako Foru Aldundia 2019rako dagoen egoera, aurrekontuaren luzapeneko, kontuan hartuz, Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 25eko 31/2019 Erabakiaren bidez, Foru Arauaren proiektua onartu zen Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontuan 2/2019 kreditu gehigarria eta 2/2019 konpromiso kreditua sortu eta Arabako Samaniego herrian gertatutako suteak kaltetutako makinaren ordezkoko erosteko aparteko laguntza lerroa baimentzeko, eta horiek Batzar Nagusiei igortzeko, izapidetu ditzaten.

Oinarriak eta deialdia idazteko, kontuan hartu da martxoaren 22ko 3/2007 Legeak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoak, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, ezarritako arau esparrua.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatuaren eta Nekazaritza Saileko foru diputatuaren baterako proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

## XEDATU DUT

Lehenengoa. Joan den azaroaren 16an Arabako Samaniego herrian gertatu zen suteak kaltetutako makineria ordeztekoa eskuratzeko laguntza bereziak arautzeko oinarriak onartzea, Foru Dekretu honen eranskinaren arabera.

Bigarrena. Nekazaritza Sailaren dirulaguntzak, joan den azaroaren 16an Arabako Samaniego herrian gertatu zen suteak kaltetutako makineria ordeztekoa eskuratzekoak, lehia askeko araubidean emateko deialdia onartzea.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontuko 40100.4100.7700001 partidan, kreditu erreserba bat onartzea, guztira 950.000,00 eurokoa, urteko hauetan:

- 2019: 700.000,00 euro (Hartu erreferentzia.: 19.5.19.105.1673)
- 2020: 250.000,00 euro (Hartu erreferentzia: 19.6.20.105.40)

Laugarrena. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua eta Nekazaritza Saileko foru diputatua gaitzea Foru Dekretu hau titular diren sailei dagozkien arloetan garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen nahiz deialdiaren ebazpenaren aurka jar daitezkeen errekurtsio guztiak ebazteko.

Bosgarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 17a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren diputatua*

**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Nekazaritza foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**IÑAKI GUILLERNA SÁENZ**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**

## ERANSKINA

**1. artikulua. Xedea eta lurralde eremua**

1.1. Foru Dekretu honen xedea lehia askeko araubidean emango diren laguntza bereziak, joan den azaroaren 16an Arabako Samaniego herrian gertatu zen suteak kaltetutako makineria ordeztekoa eskuratzekoak, arautzeko oinarriak ezartzea da.

1.2. Ondorio horietarako, laguntzak ezartzen dira hauetarako:

1.2.a) Nekazaritzako makineria eskuratzeko.

1.2.b) Nekazaritzakoa ez den eta hari lotuta ez dagoen jarduera ekonomiko bati atxikitako makineria eskuratzeko.

**2. artikulua. Onuradunak**

Laguntza hauek eskatu ahalko dituzte pertsona fisiko edo juridikoek, jarduteko gaitasun osoa badute, baldintzak betetzen badituzte eta oinarri arautzaile hauetan ezartzen diren konpromisoak eta betebeharrak betetzea hitzematen badute.

### 3. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Laguntza hauen onuradunek ondoko betekizunak bete beharko dituzte:

#### 3.1. Oro har:

3.1.a Arabako Foru Aldundiaren aurrean suteak kaltetutako ondasunen aitorten bat egin izana.

3.1.b Laguntza eman aurretik zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.

3.1.c Itzulketa edo zehapen prozeduraren baten pean ez egotea.

3.1.d. Administrazio edo zigor zehapenik ez edukitzea sexu bereizkeria edo diskriminazioa egiteagatik, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki,

3.1.e Eskaera foru dekretu honetan jasotakoaren arabera egitea.

3.2. Nekazaritzako makineriaren kasuan, gainera Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategiaren erregistroan 2018ko azaroaren 16a baino lehenago behar bezala inskribatutako nekazaritza ustiategi baten titularra edo Arabako Jatorri Deitura Kalifikatuko Kontseilu Arautzailearen Upeltegi Hazle eta Botilaratzaileen Erregistroan sartutako upategi baten titularra, Arabako Lurralde Historikoan egoitza fiskala duena, izan beharko du.

3.3 Nekazaritzaz beste jarduera ekonomiko mota bati atxikitako makineriaren kasuan, 3.1 artikuluan oro har ezarritako betekizunez gain, onuradunek 2018ko azaroaren 16a baino lehenago alta emanda egon beharko dute jarduera ekonomikoen gaineko zergan dagokien epigrafean eta egunean egon beharko dute hura ordaintzen.

### 4. artikulua. Laguntza jasoko duten inbertsioak

Laguntza jasoko duten inbertsioak suteak erabilezin utzitako makineria ordezteko berriaren erosketa izango dira, foru dekretu honetan ezarritako baldintzak bildu eta jarduera hauetakoren bat egiteko dena:

4.1. Nekazaritza jarduerak. Ondorio horietarako dirulaguntza jaso dezakeen nekazaritzako makineria talde hauek ezarri dira:

4.1.a Traktoreak.

4.1.b Mahatsa biltzeko makinak.

4.1.c Bestelako nekazaritzako makineria eta/edo ekipamenduak.

Ez da inolaz ere dirulaguntzarik emango ardoa egiteko makineria eskuratzeko, ezta adierazitako talderen batean sartzen ez den tresnarik, lanabesik, materialik, gordailurik eskuratzeko ez bestelako edozein inbertsiorako.

4.2. Nekazaritzakoak ez diren eta haiei lotuta ez dauden jarduerak. Jarduerari atxikitako garrario materiala eta makineria berritzeko dirulaguntzak emango dira.

Ez da inolaz ere dirulaguntzarik emango adierazitako talderen batean sartzen ez den tresnarik, lanabesik, materialik, gordailurik eskuratzeko ez bestelako edozein inbertsiorako.

### 5. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen inbertsioen baldintzak

#### 5.1 Oro har:

5.1.a. Dirulaguntza jaso dezakeen makineria berria izango da eta sutean kaltetutakoak betetzen zituen eginkizunak ordeztuko ditu.

5.1.b. Ordeztu edo berritu nahi den makinak 2018ko azaroaren 16an Arabako Samaniego herrian gertatutako suteak zuzenean kaltetua izan behar du eta Arabako Foru Aldundiaren aurrean egindako istripu aitorpenean sartuta egon beharko du.

5.2. Dirulaguntza jasoko duten inbertsioak laguntza eskabidea aurkeztu aurretik eginak izan ahalko dira, baina sutearen dataren ondoren.

### **6. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak, mugak eta dirulaguntzarik jaso ezin duten gastuak**

Dirulaguntza jaso ahalko du makina berri bakoitza eskuratzeko zenbatekoa hemen adierazten diren gehieneko inbertsio mugekin:

6.1. Nekazaritzako makineria: 200.000,00 euro 4.1 artikuluan ezarritako talde bakoitzeko eskuratutako makineria guztiagatik.

6.2. Nekazaritzakoa ez den eta hari lotuta ez dagoen beste jarduera ekonomiko bati atxikitako makineria: 200.000,00 euro egindako diruz lagundutako inbertsio guztiengatik.

6.3. Laguntza jaso dezakeen gutxieneko inbertsioa 2.000 eurokoa izango da talde bakoitzeko nekazaritzako makineriaren kasuan eta inbertsioen guztirakoa nekazaritzakoa ez den beste jarduera ekonomiko baten kasuan.

6.4. Inbertsioen balorazioa, diruz lagundutako aurrekontu gisa, hauetara doituko da laguntzaren ondorioetarako:

6.4.1. Nekazaritzako makineriaren kasuan, 2015-2020ko LGPren laguntza esparruan garatutako nekazaritza ustiategietako inbertsioetarako laguntzetarako balorazio modulu ofizialetara. Modulu horiek Nekazaritza Sailak ezartzen ditu urtero eta hemen argitaratzen dira:

[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/osoa\\_dokumentazioa/es\\_def/Modulos\\_noviembre2018.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/osoa_dokumentazioa/es_def/Modulos_noviembre2018.pdf)

6.4.2. Nekazaritzako makinerian dirulaguntza jaso dezakeen inbertsioen batentzat modulerik ez dagoenean, eskatzaileak hornitzaileen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu.

6.4.3. Nekazaritza jarduerari atxikita edo lotuta ez dagoen makineriaren kasuan, diruz lagundutako inbertsioaren zenbatekoak Sektore Publikoen Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legean kontraturik txikienarentzat ezarritako kopuruak gainditzen dituenean, eskatzaileak hiru hornitzaileen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez, gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan hura hornitzen duen erakunde nahikorik egon ezean, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin ezean. Aurkezten diren eskaintzen arteko hautapenean kontuan hartuko dira eraginkortasuna eta irizpide ekonomikoak.

6.4.4. Nolanahi ere, dirulaguntza eskaintzarik merkeenaren gainean kalkulatu da.

6.5. Ez da laguntzarik jasoko balio erantsiaren (BEZ) zenbatekorako.

### **7. artikulua. Laguntzaren zenbatekoa**

Laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzaren forma izango du, eskuratutako makina bakoitzaren diruz lagundutako aurrekontuari ehuneko 35 aplikatuta ateratako zenbatekoan, 6. artikuluan ezarritako inbertsio muga barruan.

### **8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea, modua eta lekua**

8.1. Laguntza eskabideak Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuari zuzenduko zaizkio edo nekazaritzako makineriaren kasuan eta Nekazaritza Saileko foru diputatuari eta horretarako ezarritako inprimaki normalizatuan eta dokumentu hauekin batera:

- Eskatzailearen NANA / IFZa.

- Eskatutako inbertsioak modularik ez daukanean, edo 6.4.3 artikuluan aurreikusitako kasuan, hiri hornitzailearen hiru eskaintza.

- Inbertsioa sutearen dataren eta laguntza eskabidea aurkezteko dataren artean igarotako aldiaren egin bada, dagokion faktura.

- Erantzukizunpeko adierazpena, suteak kaltetutako ondasunak aseguratatu gabe zeudela, osorik aseguratuta daudela edo partzialki aseguratuta daudela dioena.

- Administrazio publikoei inbertsio berberetarako eskatutako edo haiek emandako beste laguntzen aitortpena.

- Eskatzailearen adierazpena, non hauek jasoko diren:

- Laguntza emateko baldintzak ezagutzea.

- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik ez daukala eta horrelako legezko debekurik, sexu bereizkeriagatik debekuak barne, ez daukala, sexu bereizkeriagatik ezarritako debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

- Hala badagokio, aseguruetatik datozen kalteordainak justifikatzeko adierazpena.

- Hala badagokio, Jatorri Deitura Kalifikatuko Kontseilu Arautzailean upeltegi inskribatuta egotearen ziurtagiria.

- Hala badagokio, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan inskribatuta egotearen eta ordaintetan egunean egotearen ziurtagiria.

8.2. Laguntza eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia Plaza 5, 01001 Gasteiz) aurkeztuko dira; nolahi ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezartzen duena bete beharko da.

8.3. Pertsona berak nahi beste eskaera egin ahalko du ezarritako epean, eta bakoitzean inbertsio bat edo batzuk sartu ahalko ditu.

8.4. Eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da foru dekretu hau argitaratu ondoko egunetik 2020ko urriaren 30era bitartean.

8.5. Laguntza eskaera aurkeztean eskatzaileak baimena ematen du Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak eta/edo Nekazaritza Sailak zuzenean lortzeko zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotearen ziurtagiria, baita Nekazaritzako Makineriaren Erregistrotik eta nekazaritza ustiategien erregistrotik suteak kaltetutako makineriari, Arabako Foru Aldundiaren aurrean aitortutakoari buruz, behar den informazioa ere, eta beste entitate eta erakunde batzuetatik dirulaguntza zuzen baloratzeko behar den informazio oro biltzeko.

Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak eta txostenak.

8.6. Eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak berariaz onartuko ditu laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak.

8.7. Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiak eskubidea dauka eskatzaileei eskaera era egokian baloratzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio oro eskatzeko.

8.8. Eskabideetan akatsak ikusiko balira edo osagabeak balira, instrukzio organoak eskaera egingo die interesdunei 10 egun balioduneko epean falta diren eskatutako baldintzak bete eta/edo eskatutako dokumentuak aurkez ditzaten, adieraziz hori egin ezean eskaera amore emantzat joko dela, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**9 artikulua. Izapidetzea.**

9.1. Espedienteak Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuek izapidetuko dituzte, nekazaritzako makineria eskuratzeko kasuan, eta Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuak nekazaritza jarduerari atxiki eta lotu gabeko makineriaren kasuan.

9.2. Espedientea izapidetzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahal izango ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, urriaren 57 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 1. artikuluan xedatutakoa beteko da.

9.3. Eskaerak aztertuko dira onuradun izateko behar dituen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontua eta dagokion dirulaguntza zehazteko, eta prest geratuko dira horretarako sortutako kide anitzeko organoek balora ditzaten. Txosten bat emango dute haiek egindako balorazioaren emaitzarekin, eta bertan aldeko eta kontrako proposamenak agertuko dira, euren zioekin.

9.4 Foru dekretu honetan aurreikusitako laguntzak lehia askeko araubidean izapidetuko dira, eta funtsak laguntza lerro bakoitzaren barruan eskaerak jaso ahala banatuko dira, ezarritako baldintzak betetzen badituzte. 9.5 Baloratzeko kide anitzeko organo bat ezartzen da ezarritako laguntza lerroez erabakitzeke eta hemen adierazitako langileek edo haiek ordeztzen dituztenek osatuko dute:

Nekazaritzako makineria eskuratzeko:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua.
- Nekazaritza Egituren eta Landa Azpiegituraren Atalaren burua.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

Nekazaritzakoak ez diren eta haiei lotuta ez dauden jardueretarako:

- Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuaren burua.
- Toki Finantzaketa eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren burua.
- Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuko teknikaria.

9.6. Instrukzio organoek argitu eta ebatzi beharko dituzte foru dekretu honetan jasota ez dauden alderdi tekniko guztiak, laguntza esleitu ahal izateko.

**10. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena**

10.1. Balorazioko kide anitzeko organoak proposatuta, dagokion foru organoak hiru hilean behin ebatziko ditu espedienteak indarreko araudian oinarrituta, aurreko hiruhilekoan erregistratutako eskaera osoei dagokienez.

10.2. Ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

10.3. 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako (39/2015 Legea, urriaren 13koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezten

direnetik aurrera. Epe hori igarotakoan berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izango dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5 artikuluari jarraituz.

10.4. Emateko ebazpenek hauek ezarriko dituzte espediente bakoitzeko: onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa, dirulaguntza zuzenduta dagoen makina edo inbertsioa, dirulaguntza jaso dezakeen gastua, ordaintzeko modua, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta gauzatzeko epea. Ezezkoa bada, ezesteko zioa zehaztuko da.

10.5. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie onuradunei eta aurreko atalean adierazitako informazioa emango zaie.

### **11. artikulua. Onartzeko ebazpenen aldaketa**

Dirulaguntza onartzeko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok eta, nolahi ere, oinarri arautzaile hauetan baimendutako kasuetatik kanpoko beste ekarpen batzuk batera lortzeak, onartzeko ebazpena aldaraz dezakete, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoen dirulaguntzei buruzkoak, 18.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

### **12. artikulua. Diru-laguntzen ordainketa**

12.1. Dirulaguntzak diruz lagundutako inbertsioa egindakoan ordainduko dira, Nekazaritza Sailak edo, hala badagokio, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orearen Sailak ziurtagiria eman eta dagokion erosketa faktura aurkeztu ondoren.

12.2. Ordainketa hori konturako ordainketa izango da, eta ordaintzen den egunetik 6 hileko epean justifikatuko da agiri hauek aurkeztuz:

- Fakturaren ordainketaren ziurtagiria, dagokion banku transferentziaren bidez, erakundeak behar bezala zigilatuta, edo merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga balioa duen beste agiriren baten bidez.

- Eskatzaileak xede bererako kalteordaina, dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideren bat jaso badu nazioko zein nazioarteko administrazio, erakunde publiko edo entitate pribatu batek emanik, horren ziurtagiria.

- Laguntzaren bidez eskuratutako makineriarako formalizatutako arrisku oroko aseguru poliza. Haren iraupena nekazaritza ustategian edo diruz lagundutako makineria atxikitako jardueran irauteko konpromiso aldiaren parekoa izango da gutxienez.

12.3. Dekretu honetan aurreikusitako laguntzen onuradunek kontratista adjudikaziodunen edo hornitzaileen alde laga ditzakete euren kobrantza eskubideak, halako moldez non haiek zuzenean jasoko duten ordainketa bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa, konturako ordainketa bat egin behar denean.

### **13. artikulua. Laguntzen onuradunen betebeharrak.**

Oro har, laguntzen onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

13.1. Emandako diru laguntza onartzea eta eman zaion erabilera zehatzerako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Ondorio horietarako, laguntzaren emakidaren jakinarazpena jasotzen duenetik hamar asteguneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.

13.2. Honako foru dekretu honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako konpromiso eta betebeharrak guztiak betetzea.

13.3. Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketara guztiak onartzea, bai eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta kontrol organo eskudunek finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.



13.4. Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatutako eta kontrolatuak izan baitaitezke.

13.5. Jasotako funtsak itzultzea Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 13. eta 17. artikuluetan jasotako kasuetan eta Foru Arau horren 35. artikuluan ezarritako kasuetan eta/edo aplikatu beharreko arauditik datorren beste edozeinetan.

13.6. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarren bat, subjektiboa zein objektiboa, aldatu bada, aldaketaren berri eman behar diote dirulaguntza emanda duen erakundeari.

#### **14. artikulua. Onuradunen konpromisoak**

Konpromiso hauek hartzen dituzte onuradunek:

14.1. Diruz lagundutako inbertsioari atxikitako jardueran jardunean irautea, eskuratutako makineriari jabetzan eustea eta jarduera horretan erabiltzeko, gutxienez makineria Nekazaritzako Makineriaren Erregistroan inskribatu eta 7 urtez, edo erregistro horretatik salbuetsitako inbertsioetako fakturaren datatik.

Foru Dekretu honen babesean diruz lagundutako inbertsioari atxikitako jardueran titulartasuna aldatuz gero, eskuratutako konpromisoak titular berriaren alde subrogatu ahalko dira, eta hark berariaz hartu beharko ditu haiek betetzeke dauden urteetarako, lagundutako inbertsioen zuzeneko aprobetxamenduaz gain.

14.2. Laguntzaren bidez eskuratutako makineriarako arrisku oroko aseguru poliza bat formalizatzea. Haren iraupena nekazaritza ustiattegian edo diruz lagundutako makineria atxikitako jardueran irauteko konpromiso aldiaren parekoa izango da gutxienez.

14.3. Diruz lagundutako makinak Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean (NMEO) inskribatzea, erregistro hori derrigorrezkoa den kasuetan.

#### **15. artikulua. Betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea**

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, 13. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, pertsona edo erakunde onuradunak jasotako zenbatekoak itzultzea hitzematzen du, halakorik balego, zor dituen berandutze interesekin batera, Foru Arauaren 35. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

#### **16. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

16.1. Laguntza hauek ematea osagarria izango da eta 16.3 zenbakian xedatutakoa izan ezik, bateragarriak izango dira estatu zein nazioarteko sistema publiko zein pribatuetatik datozen beste dirulaguntza, kalteordain, laguntza, sarrera edo baliabideekin.

16.2. Nolanahi ere, edozein kontzepturengatiko sarrera guztien baturak, haiek publikoak zein pribatuak izan, ezingo du gaingitu makina berria eskuratzeko kostua.

16.3. Foru dekretu honen babesean onartutako laguntzak ez dira bateragarriak izango Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiattegietako nekazaritzako makineria eskuratzeko EAEko Landa Garapeneko 2015-2020ko Planaren babesean emandako laguntzekin. Laguntza horiek Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuak arautzen ditu eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 10/2018 Foru Dekretuak aldatu zituen azken aldiz.

#### **17. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea**

Urtarrilaren 18ko 1/2016 Legeak, gardentasun eta gobernu onarenak, 17. artikuluan eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntzak ematen dituzten organoek Arabako Foru Aldundiaren gardentasun atarian argitaratuko dituzte onuradunen zerrenda eta onartutako laguntzen zenbatekoa. Halaber, laguntza horiek eta, haien ondorioz, erregistro publikoetan ezar litezkeen



zehapenak ere sartuko dira. Hortaz, eskaera aurkezteak berekin dakar onuradunen datuen beharrezko tratamendurako eta publizitate horretarako baimena.

**18. artikulua. Araubide juridikoa**

Agindu honetako laguntzak urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, arautuko dituzte.